


DIRU ITURRIAK

Laurok dirua jarri genuen enpresa ireki ahal izateko, gutako bakoitzaik ahal zuena jarri zuen; Elik hogeita mila euro jarri zituen, Ugaitzek hogeita hamabost mila euro, Anderrek hamar mila euro eta Asier izan zen gehien lagundu zuena hirurogeita hamabost mila euroekin

Diru iturriak honela banatzen dira:

Prezio Finkoak: Erreformaren balioa. (Prezioa aldatu egingo da erabilitako materialaren eta eskulanaren arabera).

- 
- Zerrendako prezioa: Erreforma egiteko behar den materiala (egurra 1,20ko tabla bat) prezio finkoa du.
 - Ezaugarrien araberako prezioa: Egurraren prezioa aldatu egiten da zuhaitzen arabera (haritza, pinua...).
 - Gure bezeroen profila gutxienez 300000 €-ko erosteko ahalmena dutenena da, erosteko ahalmen handiena duten bezeroek bakarrik erabiliko dituzte gure zerbitzuak.
 - Erreforma zenbat eta handiagoa izan, gero eta garestiagoa izango da erreformaren kostua, gauza bera gertatzen da gure higiezin-zerbitzuekin, zenbat eta handiagoa izan baserria (metro karratuak), gero eta garestiagoa izango da.

Prezio Dinamikoak: Baserriaren prezioa. (higiezinen merkatua ezegonkorra da)

- Bezeroek salmenta-prezioa negoziatu ahal izango dute baldin eta etxebizitza berria ez bada, tratua mota hau bigarren eskuko merkatuari bakarrik aplikatzen zaio, etxebizitza berrietan prezioa itxita badago ezin izango liriteke inolako beherapenik egin
- 2 bezero izanez gero, 1 x kantitatearekin eta bestea x kantitatearekin, onura ekonomiko gehien ekarriko digun bezeroaren alde egingo dugu.

- Gure erreformen prezioa aldatu egingo da, zerbitzuaren eskariaren arabera, normalean 3 erreforma egiten baditugu hilean, baina merkatuaren arrazoiak direla eta, erreformen kopuruak gora egingo du zerbitzuaren prezioan.
- Etxebizitza batek denboraldi batean eskaririk ez badu (urtean zehar), enkantean jarriko dugu.

Zenbat diru ateratzen dugu proiektu eta salemta bakoitzetik

- Diru-sarreraren % 60 erreformen etekinetatik dator, beste % 40a higiezinaren salmentatik. Diru-sarrera handiagoak ditugu berrikuntzengatik, hilean asko egiten ditugulako, eta higiezinaren salmenta ez da hain arrunta.
- Etxebizitza saltzerako orduan, baserrien kopuru eta prezioa aldatu egiten da merkatuaren arabera, baina etxebizitzaren prezioaren batz bestekoa hirureun mila eurokoa da (salmenta prezioa) eta urtero bost - hamar tartean saltzen dira.
- Erreformei dagokienez, 10.000 €-ko oinarrizko prezioa kobratzen dugu, eta horrek gora egin dezake, materialen iraupenaren eta kostuaren arabera.

JAMBUNINA, S.L